

	DIRULAGUNTZA ESKAEREN OINARRIAK	
---	--	--

**SAKANAKO PERTSONEI DIRU- LAGUNTZA. JARDUERA FISIKOAREN
ARLOAN FORMAKUTZA IKASTAROAK EGITEAGATIK. 2023. URTEA**

1.- Lehenengoa: helburua

1.- Deialdi honen helburua Sakanan jarduera fisikoaren arloan formatzen diren pertsonen gastuetan laguntzea da. Horretarako Sakanako Mankomunitateak kiroleko aurrekontutik 1500 €ko partida izango du:

Oinarriok arautzen dituzten diru-laguntzak aurrekontu erabilgarriaren arabekoak izanen dira.

2.- Bigarrena: bete beharreko baldintzak

2.1.- Pertsona Sakanakoa izatea.

2.2.- Jarduera fisikoarekin erlazionatutako ikastaroren bat egitea.

2.3.- Ikastaroa bukatua eta gainditua izatea.

3.- Hirugarrena: aurkeztu beharreko dokumentazioa:

3.1. Eskaera orria guztiz bete.

3.2. Ikastaroa gainditu denaren ziurtagiria.

3.3. Ikastaroaren ordainketaren ziurtagiria.

3.4. Erroldaketa ziurtagiria.

3.5. Beste diru laguntzarik jaso bada, jasotakoaren agiria.

4.- Laugarrena: Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea: Balorazio batzordeak, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten badu, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikuluak arautzen duen bezela . Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

5.- Bostgarrena: Diru-laguntzak emateko erabiliko den baremoa honako hau izanen da:

Aurrekontuan dagoena guztien artean berdin banatuko da. Inoiz ez da pasatuko izen ematearen %50etik ezta 300€tik ere ez.

6.- Seigarrena: Balorazio batzordea:

Kirol zerbitzuko teknikariek aztertu eta baloratuko dituzte aurkeztutako eskabideak.

7.- Zazpigarrena: Eskaerak aurkezteko lekua: dokumentazioa Sakanako Mankomunitateko erregistro orokorrean aurkeztu behar dira:

Sakanako Mankomunitatea

Kirol Zerbitzua

Uriz 32

31830 Lakuntza

Telefonoa: 948 464867

E-posta: erregistroa@sakana-mank.eus

8.- Zortzigarrena: Eskabideak aurkezteko epea:

2023ko abenduaren 12an amaituko da.

9.- Bederatzigarrena: Diru- laguntzaren jakinarazpena:

Sakanako Mankomunitateko lehendakariak dagokion ebazpena egin eta jakinaraziko du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta argitaratutako hurrengoekin bat 2024ko urtarrilaren 31a baino lehen, jasotzailearen zerranda eta zenbatekoak adieraziz; onartu gabekorik baleude, berauen berri ere bertan emango da zergatiakin batera.

	DIRULAGUNTZA ESKAEREN OINARRIAK	
---	--	--

10.- Hamargarrena: Bateragarritasuna:

Deialdi honetako diru- laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain- finantzaketarik gertatzen ez bada.

11.- Hamaikagarrena: Datuen babesa:

Tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitatea.

Xedea: Kirol Zerbitzuak hiritarrei eskainitako zerbitzuen kudeaketa eta, eskatuz gero, zerbitzuak antolatutako ekimenak eta informazioaren bidalketa.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko edota ezabatzeko eskubidea duzu, baita bestelako eskubideak ere, Mankomunitatearen bulegoetara edo info@sakana-mank.eus helbidera joz.

Informazio gehiago: Pribatutasun Politika www.sakana-mank.eus helbidean.

Besteren datuak:

Tramitazioan, hura burutzen ari den pertsonaren aparteko norbaiten datu pertsonalak sartu beharko balira, egin aurretik hirugarren pertsona horri aurreko paragrafoan bildutakoaren berri eman beharko zaio, eta haren berariazko baimena eskatu, hala beharko balitz.

12.- Hamabigarrena: Errekurtsoak.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio ebazpenen aurka, ondoko errekurtsoak aurkezten ahalko dira:

- *Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren egile den organoari zuzendua. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina hilabeteko epean.*
- *Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.*
- *Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.*